ALHAO ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**

2021eko otsailaren 26a, ostirala • 23 zk.

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 28/2021 Foru Agindua, otsailaren 18koa, zeinaren bidez Guardiako 5 poligonoko 94 lurzatian, "Huerta Vieja" parajean, nekazaritzako biltegia jartzeko plan bereziaren ingurumen txosten estrategikoa ematen baita

Erreferentziazko plan bereziaren izapidetzea ingurumen ebaluazio estrategiko erraztuaren prozedurari lotuta dago, zeina Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arautzen baitu.

Prozedura horren barruan, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak plan berezi horri buruzko ingurumen dokumentu estrategikoa jaso zuen Guardiako Udalak igorririk, Guardiako 5 poligonoko 94 lurzatian, "Huerta Vieja" parajean, nekazaritzako biltegia jartzeko. Agiri horrek Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legeak arututako gutxieneko edukia du. Horrez gain, planaren zirriborroa ere igorri zuen Guardiako Udalak.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso ondoren, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa Ingurumen Jasangarritasunerako Zerbitzuak eman du 2021eko otsailaren 8an (20/77 espedientea). Ingurumen txosten estrategikoak indarra galduko du ALHAOn argitaratu eta lau urteko epean erreferentziako plan berezia onesten ez bada, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 31.4 artikuluari jarraikiz.

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpen motza. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aztertutako aukerak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Plan bereziaren xedea da nekazaritzako pabiloi bat eta hari lotutako etxebizitza bat ezartzea, ezaugarri hauekin, udal plangintzako arau subsidiarioek ahalbidetzen dutenari dagokionez:

Proeikatutako pabilioia:

Pabiloiak 314 m²-ko azalera izango luke, eta lotutako nekazaritza ustiategiko lanabesak eta makinak biltegiratzeko erabiliko litzateke. Nabeak instalazio elektrikoa, saneamendua eta edateko ura izango ditu. Hauek dira ezaugarri nagusiak:

	GUARDIAKO ARAU SUBSIDIARIOAK	PROIEKTUA
Eraikigarritasuna	1 m²/m² lurzati hartzailearen gainean aplikatuta	0,05 m²/m²
Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera	3.000 m²	6.209 m²
Lotutako azalera	0,3 ULU	22 poligonoko 55, 59 eta 911 lurzatiak lotu dira Villalbako parajea: 1,8107 hektareako guztizko azalera (0,301 ULU)
Gehieneko okupazioa	lurzati hartzailearen ehuneko 70	ehuneko 5
Gehieneko solairu kopurua	2	1
Garaiera erlaitzera edota teilatu hegalera	8 m	4,27 m
Mugetarainoko tartea	5 m	5 m
Bideetarainoko tartea	8 m (foru arauaren arabera)	8 m

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Proiektatutako etxebizitza:

Eraikinak 361,85 m²-ko azalera izango luke, etxebizitza eta garajerako, eta honako ezaugarri nagusi hauek izango lituzke:

	GUARDIAKO ARAU SUBSIDIARIOAK	PROIEKTUA
Eraikuntza mota	Etxebizitza bateko edo biko etxe bakartua	Etxebizitza bateko etxe bakartua
Etxebizitza bakoitzari lotutako azalera, gutxienez	0,5 ULU	Etxebizitzari lotu zaio 22 poligonoko 190 lurzatia, 8,12 hektareako azalera duena (1,35 ULU), gehi lursailak berak dagoeneko dituen 6.209,02 m² (0,1 ULU)
Eraikigarritasuna	0.15 m²/m²	0,058 m²/m²
Lurzati hartzailearen gutxieneko azalera	3.000 m²	6.209 m²
Gehieneko okupazioa	lurzati hartzailearen ehuneko 10.	ehuneko 5,81
Gehieneko solairu kopurua	2	1
Garaiera erlaitzera edota teilatu hegalera	7 m	3,80 m
Mugetarainoko tartea	5 m	5 m
Errepideetarainoko tartea	—	Ez dagokio
Bideetarainoko tartea	8 m (foru arauaren arabera)	8 m

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Plan bereziaren jarduketa eremua Guardiako udalerriko ipar-mendebaldean dago, "Huerta Vieja" parajean; zehazki, 575 metro ingurura; Guardiako udalerriko 5 poligonoko 94 lurzatian. Lurzatiaren azalera 6.200 m² baino zertxobait handiagoa da, eta mahastiak landatutako eremuan ehuneko 4 inguruko malda du. Eremu osoa nekazaritzakoa da nagusiki, eta ingurumen elementu aipagarri gisa nabarmentzekoa da Rioseco erreka, zeina plan bereziaren eremuaren mendebaldeko kanpo mugaren ondotik igarotzen baita.

Plan bereziaren eremuaren ikuspegia (berdez grafiatua) Guardiako herriaren ipar-mendebaldean

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Hurrengo irudian, plan bereziaren jarduketa eremuan etxebizitzarako (kolore urdina) eta nekazaritza naberako (kolore arrosakara) proiektatutako antolamendua ikus daiteke; espazio libreen sistema kolore berdexkan irudikatu da:

1.3. Aztertutako aukerak:

Sustatzaileak aurkeztutako agirietan azaltzen denez, hiru aukera hartu dira kontuan:

— “0” aukera edo ez jardutekoa (ez da hautatu): ekimena ez gauzatzea eta sustatzailearen beharrei ez erantzutea ekarriko luke.

— “1” aukera (hautatutakoa): Nekazaritza intereseko eremuak babesteko lurzoru urbanizaezinean nekazaritza pabilioi bat eta hari lotutako etxebizitza bat egitea ekarriko luke. Plan bereziaren xede diren lurzati mugakideetan sustatzailearen jabetzako mahastiak daudenez, alternatiba hori da logikoki egokiena; izan ere, biltegiaren eta materialak eta makinak erabiliko diren finken arteko ibilbideak optimizatuko lirateke, sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan adierazten duenez.

— “2” aukera (ez da hautatu): Lurzoru industrialean nekazaritzako pabilioi bat egitea ekarriko luke, baina aurkeztutako dokumentazioaren arabera, Guardiako udalerriak ez du erabilera xehatuko lurzorurik nekazaritzako pabiloietarako; beraz, ekimena udalerriko jarduera ekonomikoetarako lurzoruetan dauden beste instalazio batzuen artean ezarri beharko litzateke, zeinak gaur egun jada beteta (25, 31 eta 34 industrialdeak) edo herrigunetik urruti (Casablanca industrialdea) edo garatzeke (33 industrialdea) baitaude. Hori dela eta utzi da alde batera aukera hau.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Kontsulta fasearen laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak gauzatu egin du eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko fasea, araututako prozedurari jarraituz. Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarteen zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

URA – Uraren Euskal Agentzia	√
Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza	√
Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	
Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkartea	
GAIA elkartea	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkartea	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	√
Arabako Kontzejuen Elkartea	
SEO Bird Life	
Guardiako Udala	
Guardia - Arabako Errioxako Kuadrilla	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	√
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	√

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoaren laburpena (alegazio edo oharren kopia osoa dago Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 20/77 espedientean eta www.araba.eus web orrian):

• Arabako Museo eta Arkeologia Zerbitzuak jakinarazi du obrek eragindako eremuan ez dagoela aztarnarik edo egitura arkeologikorik. Edonola ere, edozein aurkikuntza berehala jakinarazi behar zaio Arabako Foru Aldundiko Kultura eta Kirol Sailari.

• Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak adierazi du plan horren eremuan ez dagoela kultura ondareko elementu indibidualizatuen gaineko eraginik. Hala ere, jakinarazi du planaren eraginpeko zona Arabako Errioxako ardoaren eta mahastien paisaia kulturala kultur ondasun, monumentu multzo kategoriarekin, kalifikatzen duen ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren aplikazio eremuan dagoela (EHAA, 111. zk., 2014ko ekainaren 13a). Beraz, sustatzaileari eskatu dio Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena lor dezala planean aurreikusitako jarduera egiteko, udal lizentzia eskuratu aurretik.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

• URA Uraren Euskal Agentziak lehenengo txosten bat eman zuen eta bertan zehaztu zuen eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri ziola, egokitzat joz gero gaiari buruzko txostena egin zezan, Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

Urak bigarren txosten bat egin du, eta, bertan, zenbait ohar orokor eta beste gai batzuk adierazi ditu, batez ere hornidurari eta saneamenduari buruzkoak. Azkenik, honako hau ondorioztatu du:

— Ibaiertzeko landaredia hobetzeko neurriak planteatzeko aukera iradoki du, dauden zuhaiztien zabalera eta Rioseco errekaren ezkerreko ertzean dauden espezieak handitzeko. Ingurumen integrazioko neurriak ezarri behar dira obrek irauten duten bitartean.

— Beharrezkotzat jo du lurzatiaren uholde arriskua aztertuko duen justifikazio hidraulikoa aurkeztea, espedientearen hirigintza izapideari begira.

— Hirigintza izapideen esparruan, ur hornidurarako aurreikusitako eskaerak aintzat hartu beharko dira arroko erakundeak horri buruzko iritzia eman dezan, eta Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren (erakunde kudeatzailea) adostasun txostena ere lortu beharko da, proposatzen den hornidura sare orokorrera konektatzea bideragarria dela eta proposatzen den saneamendu azpiegitura nahikoa dela ziurtatzeko.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak, bere aldetik, txosten bat egin du, eta, bertan, planaren laburpen bat eta zenbait ohar orokor egin ondoren, ondorioztatu du ingurumenaren ikuspuntutik bateragarriak direla sistema hidrikoari dagokionez, "Betiere, behar diren neurri prebentibo eta zuzentzaile guztiak gauzatzen badira, proposatutako plan bereziak eragindako zonan eta haren inguruan izan dezakeen eragina minimizatzeko (…)".

• IHOBE Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak honako hau adierazi du: "Erakunde honek duen informazioaren arabera, aipatutako kokapenean ez da izan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik; horrenbestez, ez dago jasota lurzorua kutsa dezaketen jarduerak edo instalazioak dituzten edo izan dituzten lurzoruen inbentarioan". Era berean, honako hau adierazi du: "Kutsadura zantzurik agertuz gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazi beharko zaio, lurzorua kutsatzea saihestu eta kutsatutakoa garbitzeari buruzko 4/2015 Legearen 22. artikuluan ezarritakoa betez".

• Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak txosten bat egin du, zeinetan plan bereziaren laburpen bat jaso baitu. Nabarmendu du proiektatutako eraikuntza nekazaritza lurzoruan dagoela, zeinaren zati handi batean mahastiz landatua baitago, eta EAEko Nekazaritza eta Basozaintzako Lurralde Plan Sektorialak Balio Estrategiko Handikotzat katalogatu duela, eta, beraz, Nekazaritzako Sektore Eragina Ebaluatzeko Protokoloa aplikatu behar da. Protokolo hori bidalitako txostenari erantsi dio. Horrez gain, honako hau ondorioztatu du: "Kontuan izanik Nekazaritzako Sektore Eragina Ebaluatzeko Protokoloaren emaitza, eta eraikuntza laborantzako ustiategi batek sustatzen duela, eta laborantzarako baliatuko duela eraikuntza, iritzi zaio plan bereziak eragin onuragarria izango duela nekazaritzako ekoizpen primarioan".

Halaber, adierazi du Nekazaritza Saileko Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak txosten bat egin eta erantsi duela Eusko Jaurlaritzaren ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuari dagokionez, non adierazten baita ez dagoela txabola, etxetxo edo etxolarik, ez eta laborantza terrazemendurik edo zapaldarik ere. Horien babes araubidea aipatutako dekretuan jasotzen da. Horiek gorabehera, Arabako Errioxako nekazaritza paisaiari dagokionez beste araudi batzuetan jasotako murrizketak ere aplika litezke.

• Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuko Kultura eta Kirol Zuzendaritzak txosten bat helarazi du. Bertan adierazi duenez, plan bereziaren bidez garatu beharreko eremua Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Monumentu Multzoaren barruan dago (89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa), eta, beraz, eragina du historia eta arkitektura ondarearen arloan. Horri dagokionez, honako hau adierazi du: "Plan bereziaren eremua LAG-TER-70 terrazamenduaren barruan dago, eta kontuan hartu beharko da izapidetzen ari den hirigintza plangintza behar bezala integratzeko".

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

3. Eragina jaso lezaketen elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen inpaktu nagusiak

Eremuaren azalera osoa 6.200 m² da Guardiako 5 poligonoko 94 lurzatian. Mahastiak dituzten nekazaritza lurzoruak dira ia guztiak, eta ekialdeko mutur oso txiki batean belar landarez eta zuhaixka landarez osatutako zerrenda estu bat dago, elorri beltzek (*Prunus spinosa*), aranondoek (*Prunus sp.*) eta arkakaratsek (*Rosa canina*) osatua. Nolanahi ere, eta sustatzaileak berak ingurumen dokumentu estrategikoan deskribatzen duenez, landaredi horri ez lioke eragingo nekazaritza pabilioia edo hari lotutako etxebizitza eraikitzeak.

Plan bereziaren eremuaren mendebaldeko ertzean Rioseco erreka dago, bai eta haren ertzeko landaredia ere, sahasti bat (*Salix sp.*) nagusiki. Erreka hori, hari lotutako landaredia-rekin batera, korridore ekologiko garrantzitsua da, eta are garrantzitsuagoa hain antropizatuta dagoen eta hainbeste nekazaritza esku hartze izan dituen eskualde horretan. Izan ere, Rioseco erreka Euskal Autonomia Erkidegoko Korridore Ekologikoen Sarearen barruan dago (2005eko urtarrila. Eusko Jaurlaritza. Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila. Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritza). Horrez gain, erreka hori uhalde enara (*Riparia riparia*) espeziearen berezko banaketa eremuaren zati da. Espezie horrek kudeaketa plana du, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsia eta 2000ko martxoaren 27ko ALHAOn (73. zenbakia) argitaratua. Hori dela eta, beharrezkoa da ingurumen integrazioko neurri jakin batzuk hartzea, plan bereziak konektagarritasun ekologikoan eta uhalde enararentzat egokia den habitat horretan izan ditzakeen ingurumen ondorioak minimizatzeko. Landaketak egin beharko dira nagusiki, Rioseco errekan eta haren ertzeko landaredian eraikinek eta haiei lotutako erabilerek izan dezaketen inpaktua minimizatzeko.

Horrela, bada, txosten honek aztertzen duen plan berezian proiektatutako jarduketaren inpaktu garrantzitsuenak, partzialki eta zeharka bada ere, konektibitagarritasun ekologikoan eta nagusiki faunan gertatuko dira. Paisaian eta nekazaritza lurzoruan, baita hornidura eta saneamendu baliabideetan ere, inpaktu txikiagoak gerta daitezke. Inpaktu horiek onargarritzat jotzen dira, baldin eta txosten honetan jasotzen diren neurri babesle eta zuzentzaileak hartzen badira.

Paisaiari dagokionez, kontuan hartu behar da bi eraikin berri egingo direla (nekazaritza pabiloia eta hari lotutako etxebizitza) mahastien paisaia batean (ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuaren arabera Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastien Kultura Paisaia monumentu multzo izendatua), eta, paisaiaren gaineko ondorio negatiboak minimizatzeko, babes neurri garrantzitsuena izango da material tradizionalekin edo zonan berezkoak direnekin (koloreari eta itxurari dagokionez) eraikitzea eraikinok. Beraz, eraikin berriak bat etorri beharko dira etxebizitzak dauden Guardiako alde horretako berezko ezaugarriekin. Era berean, kultura arloan eskumena duen foru organoak paisaiaren arloan xedatutakoa bete beharko da eta dagozkion baimenak eskatu beharko zaizkio foru organo horri, ekainaren 3ko 89/2014 Dekretuan xedatutakoaren esparruan, udal lizentzia eskuratu aurretik. Azkenik, eraikinaren inguruan paisaia horretan ohikoak diren zuhaitz eta zuhaixka autoktonoak landatu beharko dira bisualki integratuago egon daitezen; esaterako, arteak (landaredia potentziala) landa daitezke.

Nekazaritza lurzoru gutxi okupatuko da, eta okupazioa bateragarria dela adierazi du Nekazaritza Zuzendaritzak, baina kontuan hartu behar da eremu horretan nekazaritza azalerak etengabe galtzen ari direla, eskualdean hirigintza jarduketak ugaritzearen ondorioz. Jarduketa onargarria izanik ere, berreskuratu egin beharko dira gainazaleko aukera organikoak berriz ere erabiltzeko, hondatutako eremuetan edo inguruan dauden laborantza lurzoruak hobetze aldera.

Ez da eraginik sortuko babestutako espazio naturaletan, Batasunaren intereseko habitatetan edo Batasunaren lehentasunezko intereseko habitatetan (Habitatak 92/43/EEE zuzentarauaren arabera), ezta intereseko bestelako landaredia naturaletan ere. Gainera, nabarmentzekoa da plan bereziaren eremua, hiri lurzorutik nahiko gertu dagoenez (575 metro, gutxi gorabehera), sarbide asfaltatu baten bidez konektatuta dagoela eta dagoeneko finkatuta dauden eraikuntzak daudela hurbil, eta, beraz, ez da obra konplexurik egin behar elektrizitatearen, saneamenduaren, horniduraren eta abarren oinarrizko zerbitzuak hurbiltzeko.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Bestalde, plan bereziak etxebizitza bat eta nekazaritza pabilioi bat egitea ahalbidetzen duenez, aldaketak eragingo ditu uraren horniduraren eta saneamenduaren gaineko eskarian, eta, beraz, gai hidraulikoen gaineko organo eskudunak horri buruz eta bere eskumeneko beste gai batzuetan ezartzen duena bete beharko da, URA Uraren Euskal Agentziak kontsulten fasean adierazi duenaren arabera. Horiek horrela, sustatzaileak Arabako Errioxako Ur Partzuergoaren (erakunde kudeatzailea) adostasun txostena lortu beharko du, proposatzen den hornidura sare orokorrera konektatzea bideragarria dela eta proposatzen den saneamendu azpiegitura nahikoa dela ziurtatzeko. Horrez gain, beharrezkoa izango da lurzatiaren uholde arriskua aztertuko duen justifikazio hidraulikoa aurkeztea, espedientearen hirigintza izapideari begira, eskumena duen administrazio hidraulikoak adierazten duen moduan.

Hondakinen sorrerari dagokionez, esan behar da plan berezia onestearen ondorioz gauza daitezkeen eraikuntza obrak ingurumen inpaktuak minimizatzeko moduan egin beharko direla, eta obren ondorioz sortutako hondakinen kudeaketa desegokiak eragin ditzakeen ondorio negatiboak saihestu beharko dira.

Azkenik, plan bereziaren ondoriozko inpaktuak ingurumenaren aldetik onargarriak badira ere, kontuan hartu behar da nekazaritzako biltegiak eta etxebizitza gehigarriak ezartzeko helburuarekin inguruan beste plan berezi batzuk baimentzeak inpaktu metagarriak sortuko lituzkeela eta horrek lurralde, hirigintza eta ingurumen antolamenduko arazo nabarmena eragin lezakeela, eta hori aintzat hartzea komeni da.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Guardiako 5 poligonoko 94 lurzatian, "Huerta Vieja" parajean, nekazaritzako biltegi bat eta hari lotutako etxebizitza bat jartzeko plan bereziaren hirigintza agiriak kontuan hartu beharko ditu honako neurri babesle eta zuzentzaile hauek:

• Hirigintza dokumentuan jaso beharko dira eta, ondoren ezarri, ingurumen agiri estrategikoaren "Ingurumenean sortu daitezkeen ondorio negatiboak prebenitzeko, murrizteko eta ahal den heinean zuzentzeko aurreikusitako neurriak" atalean zehaztutako neurri babesleak eta zuzentzaileak (29 eta 30 orrialdeak). Halaber, lanen jarraipena egiten den bitartean, kontuan hartu beharko dira ingurumen agiri horren "Igurumen jarraipena" atalean jasotzen diren neurriak (31. eta 32. orrrialdeak).

• Ingurumena lehengoratzeko programa bat egin behar da plan bereziaren eremuan. Landaredia lehengoratzeko eta paisaian integratzeko programa gauzatu egin beharko da, eta txosten honetan adierazitako baldintzak jaso beharko ditu. Programa horrek gutxienez 750 m^2-ko azalera hartuko du, eta eraikuntza proiektuarekin batera aurkeztu behar zaio ingurumenaren alorreko organo eskudunari, hirigintza dokumentua behin betiko onetsi aurretik. Gainera, neurketak, planoak eta aipatutako espezieekin egindako landaketetarako aurrekontua jaso beharko ditu. Plan bereziaren bi eremutan landatu beharko dira zuhaitzak:

Alde batetik, eraikinak paisaian integratzeko eta paisaia hobetzeko, ahal dela, planaren eremuan egon daitezkeen landaredi espezieak landatu beharko dira (*Quercus ilex subsp. rotundifolia*), bai eta Arabako Errioxako eskualdearen baldintza klimatiko eta edafikoetara egokituta dauden landa espezieak ere.

Beste aldetik, Rioseco errekako ertzeko landaredia indartu eta hobetu beharko da, dagoen zuhaiztiaren zabalera ibai inguruneetako berezko zuhaixka espezieekin handitu dadin, hala nola honako hauekin: zume gorria (*Salix purpurea*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta intsusa beltza (*Sambucus nigra*). Plan berezian "espazio libreko sistema" gisa ezarritako berdegunean landaketak egin behar dira. Berdegune hori Rioseco errekaren ertzeko landarediaren ondoan dago, mendebaldeko ertzaren kanpoaldean, eta ibaiertzeko landareditik hurbilen dagoen eremuan egin behar dira landaketak, gutxienez.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Gorriz nabarmendu da Rioseco errekaren ertzeko landaredia indartzeko lehentasunezko landaketa eremua; egungo landareditik 6 metro inguruko aparteko landaredi zerrenda bat da

Gainera, landaketa jarduketarekin batera, gutxienez, honako lan hauek gauzatu beharko dira:

— Xehetasunezko modelatua eta profilaketa eta lurrazaleko forma irregularrak doitzea, lur naturalarekin kontaktuan dauden zonetan doikuntza fisiografikoa egiteko.

— Zuhaixka eta zuhaitzak landatzeko eremuen gainean, kalitatezko landare lurrezko geruza jartzea, gutxi gorabehera 30 cm lodi, eta, gainera, hori baino lehen, oinarria eratzeko, zamatzeko, garraiatzeko eta hedatzeko lurrak prestatu, aratu eta, azkenik, zehazki berdindu behar dira, behar bezalako akabera emateko.

— Lurzorua lantzea eta harrotzea, eta ondoren, fintzea eta berdintzea, azalerak ereintzarako prestatzeko eremu lauetan edo malda txikiagokoetan.

— Eremu lauetako landak ereitea gramineo espezieekin, 30 gr/m^2-ko haziak erabiliz, zokorrak hautsita edo lurren harrotze arina eginda. Horrez gain, lurrak aratu, erein, ongarritu eta haziak estaliko dira, 20.000 kg/ha lurrustel edo antzekoren bat erabiliz.

— Inguruan modu naturalean dauden zuhaixka espezieak eta ibaiertzetako landaredia landatzea, esate baterako, zume gorria (*Salix purpurea*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*) eta intsusa beltza (*Sambucus nigra*). Sustrai biluzian edo erro lurrean landatuko dira, beren zurkaitzekin, behar bezala ainguratutako material fotodegradagarrizko belar aurkako babeslearekin. Babesle horren ezaugarriak honako hauek dira: "horsol" mota, 110 gr/m^2-ko dentsitatea, baita kontserbazioa eta ureztaketak ere. Landatzeko zuloaren neurria 0,3 x 0,3 x 0,3 metrokoa izango da, edozein lur motatan egitekoa, zuloa lurrustelez hobetutako landare lurrez beteta. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak kargatu eta hondakindegi kontrolatura eramango dira, eta isurtze saria ordainduko da. Landaketa esparrua: 0,5 x 0,5 m.

— Arteak (*Quercus ilex subsp. rotundifolia*) landatzea, sustrai hutsekoak zein sustrai lurdunak, zurkaitza behar bezala jarrita, material fotodegradagarriekin egindako belarren aurkako babesgarriarekin, behar bezala finkatuta eta gutxienez 2-3 urteko iraupena bermatuz, eta horrez gain, mantentzea eta ureztatzea. Zuloaren neurria: 0,6 x 0,6 x 0,6 m. Edozein lur motatan egingo da, eta zuloa lurrustelez ondutako landare lurrez beteko da. Halaber, hutsarteak beteko dira eta zuloa zabaltzean sortutako hondakinak zamatu eta hondakindegi kontrolaturen batera eramango dira.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

— Landaketen erabateko mantentze lana. Ureztatzeak barne direla, defizit hidrikoaren aldietarako. Bai eta lurreztatze, azaltze eta jorraldiak ere, beharrezkoak badira, konformazio inausketa eta adar siku eta adar zupatzaileak kentzea, eta oinarrizko zurkaitz eta babesleak jartzea.

— Landatzeko garaia: abendua-otsaila.

• Nekazaritza biltegiak eta etxebizitzak okupatuko duen landare lurrari dagozkion horizonte edafikoak aukeraketa eginez kenduko dira eta egokia izango da berehala horiek banatzea eta biltzea, ahal bada plan bereziaren eremuari atxikitako lursail batean. Gehienez 2,5 metro garai izan daitezkeen sekzio trapezoidaleko multzotan egin behar da pilaketa. Obrak eragindako eremuetan landaretza leheneratzeko eta lurzorua birjartzeko egin behar diren lanetan erabiliko da landare lurra, edota finka edo mendi mugakideetako lurzorua hobetzeko.

• Uhalde enara (*Riparia riparia*) kudeatzeko planean jasotako zehaztapenak errespetatu beharko dira. Plan hori Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 7ko 22/2000 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen eta 2000ko martxoaren 27ko ALHAOn argitaratu zen (73. Zenbakia).

• Proiektatutako bi eraikinetan (nekazaritzako biltegia eta etxebizitza) kanpoko argiak instalatzen badira, ahalik eta gutxien instalatuko dira, eta LED motakoak eta potentzia murriztukoak izan beharko dute. Eraikinen mendebaldeko fatxadetan ezin izango da luminariarik jarri, Rioseco errekaren ertzeko landarediaren eremuan argi intrusiorik ez sortzeko.

• Plan berezia garatzeko jarduketen ondoriozko eraikuntza lanak gauzatzeko aldian, ontzi estankoak, andel iragazgaitzak edo bestelako sistemak jarri beharko dira lubrifikatzaileak edo erregaiak biltegiratzeko, eta debekatuta dago erabilitakoak isurtzea. Kudeatzaile baimendu bati eman behar zaizkio halakoak. Debeku hori sor daitezkeen hormigoi hondarrei, eraikuntza materialei, lurrei eta abarri ere badagokie. Horiek denak baimendutako hondakindegi edo zaborrtegira bidaliko dira. Ekainaren 26ko 112/2012 Dekretuan adierazi bezala kudeatu beharko dira eraikuntzako eta eraispen lanetako hondakinak. Dekretu horrek eraikuntzako eta eraispenetako hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen ditu.

• Sustatzaileak eta foru aldundi honen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak ingurumen jarraipena egingo dute biltegiaren eraikina eta hari lotutako etxebizitza eraikitzen eta esparrua urbanizatzen den fasean. Horrela, ingurumena lehengoratzeko aplikatutako neurri zuzentzaileak eraginkorrak izan diren ala ez jakin eta ebaluatuko dute, hala badagokio, antzeamaten diren hutsuneak zuzen daitezen. Horri dagokionez, jarduketak hasi baino lehen, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari jakinaraziko zaio, ezarritako ingurumen neurriak ondo bete direla egiazta dezan.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan eskuduntzak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Guardiako 5 poligonoko 94 lurzatian, "Huerta Vieja" parajean, nekazaritzako biltegia ezartzeko plan bereziaren ingurumen txostena ematea.

Bigarrena. Ingurumen Ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 18a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2021.02.27 00:00:13 Z